

Literatura > LIBURUAK

Hitzaren arnasa lanbro

MIKEL AYERBE

Fitola Balba Karpuki Tui liburuko *Ehizakia* azken poemako azken bertso-lerroetan honela zioen Jon Gerediagak: «Eta basoko bidean / jainkoak harrapatzeko tranpa / hutsik jarraitzen du». Eta argitaraturiko bigarren poema liburuari *Jainkoak harrapatzeko tranpa* izenburua jarri dio. Bertso-lerro bat poema liburu baten izenburu bihurtzean eginiko joko hau abiapuntu egokia da poemon nondik norakoaz aritzeko.

Izan ere, Jainkoak harrapatzeko tranpa horretan poemak, bertso-lerroak, hitzak edota irudi poetikoak etengabe nahasten, lotzen eta korapilatzen dira. Horren adibide dira poema bat baino gehiago biltzen dituzten izenburuak —*Ilunabarra I eta Ilunabarra II*; lau *Negupasak*— eta ideia baten inguruan eginiko poemak —*Demiurgoaren promesa* eta *Demiurgoaren gogoa* kasu—. Angel Zelaiek sinatzen duen hitzaurreak ere hori bera adierazten du, Gerediagaren poemetako bertso-lerro eta hitzekin osatu baitu sarrera testua. Bertan *nova angeologia* terminoa erabiltzen du liburuan zehar agertzen diren aingeru eroriak, aingeru go-

rriak, aingeru ehiztariak edo aingeru elbarriak biltzeko. Baina hain agerikoak ez diren beste hainbat lotura ere egin ditzake irakurleak, poemok ematen baitute horretarako. Oreinak, Orfeoren txirula, intxaurreak... behin baino gehiagotan agertzen dira liburuan. Izenbururako aukeratu du dan *Ur-lasterrek* poemako «Hitzen arnasa lanbro» esaldia, *Arnasa* poemako «munduaren hasperena den behelaino honetan» esaldian berragertu zen nire irakurketan.

Egiturari dagokionez, urte sasoiaren arabera, hiru ataletan banatzen dira liburuko poemak: lehenengo atala *Udaberria*. Uda da eta bigarrena, *Udazkena*. Negua. Azkeneko atalean, aurrenekoaren izenburua errepikatuz, *Udaberria*. Uda, denbora zein bizitzaren eten gabeko joan-etorria ematen du aditzera Gerediagak. Atalen banaketan kontu horrek Kim Ki-Duk zine-magile korearraren *Bom yeoreum gaetul gyeowool geurigo bom* (Udaberria, uda, udazkena... eta udaberria berrir) filmaren izenburua ekarri dit gogora (nahiz eta jakin poeta askorengan ohikoa dela denboraren iragaitari buruzko poemak egitea). Urte sasoiakin bezala, naturako elementuei eginiko



■ 'Jainkoak harrapatzeko tranpa'

Egilea: Jon Gerediaga.
Argitaletxea: Pamiela. Urtea: 2007.

erreferentziek ere garrantzia dute poemaren antolaketa. Musikari bati irakurri nion bezala, naturako irudiak erabat egokiak dira gure barneko gertaerak irudikatu eta ulertzera emateko. Naturako elementuekin eginiko metafora soti-lek indar handia dutela, alegia, eta naturaren mintzoa unibertsala

dela. Eta Jainkoak harrapatzeko tranpa honetan behintzat horrela da, basoan negurako biltzen diren intxaurren irudi esanguratsutik hasita.

Gerediagak *Fitola Balba Karpuki Tui*-ko poemetako estiloari edo idazkerari heldu diola iruditzen bazait ere, oraingo honetan poetak darabilen tonuak aldaketa nabarmena jasan duela agerikoa da. Poema askotan irakurriko dugu Bizitzari eginiko aldarria, bizitzeari eginiko kantua. Ez da kasualitatea liburuko lehen poema *Beste kantu bat Auschwitz dela* ere izatea eta han eta hemen, «bizitzaren iskanbila helduko da / mamu alaien inauteria edo Baina nik / mundua Bizirik da / esango dut burua alxtatu gabe» bertso-lerroak aurkitzea. Une ezdeusak jainkotzeko ahalegina airtzen da eta behin bakarrik bizitzera ospatu egin behar dela berresten, Hölderlinen aipueren il-dotik. Forma aldetik bereizten diren *Zerrenda*, *Heriotza eta kimuak* edo *Bestea* poemak ere bitxiak dira (azken hori bereziki), zerrendaturiko hitzen jolas amaigabearen erakusgarri.

Azken batean, ezaugarri hauek edo norberak aurkitu ditzakeen beste hainbatek erabat gomendagarria bihurtzen baitute jainko gure tranparen zuloan erori arte isilean koblaka dabilen poetaren mintzoa.

>> mayerbe@berria.info



■ 'Korana'

Itzultzaileak: Dionisio Amundarain eta Inaki Ugaldé. Argitaletxea: Ibaizabal. Urtea: 2007.

Musulmanen liburu sakratua, *Korana* edo *Errezitazioa*, Muhammad profetak jaso eta hogeituzte (K. o. 610-632) «errezitatu» zuen errebelazioa biltzen du liburu honek. Profeta hil eta berehala jarri zuten idatziz errebelazio hori. Erlijioen Jakinduria bildumaren barruan argitaratu du liburua Ibaizabalek, Jaurilaritzaren eta Deustuko Unibertsitatearen laguntzaz.



■ 'Senez', 32. zenbakia

Argitaratzailea: ELZIZE. Urtea: 2007.

Bertsolariak ere itzultzaile eta Euskal literatura gaztelaniaz. Itzulpena, autoitzulpena, bertsioak gaien inguruko mahai-inguru banaren transkripzioak eskaintzen ditu, besteak beste, *Senez* itzulpen aldizkariak 32. zenbakian. Xabier Amurizak, Koldo Tapiak eta Xabier Paryak hartu zuten parte bertsolari-tzaren ingurukoan; Jon Alonsok, Harkaitz Canok eta Juan Luis Zabalak literaturakoan.



■ 'Lezoko herri mugimendua XX. mendean'

Egilea: Ibon Ostolaza.
Argitaratzailea: Lezoko Udala. Urtea: 2007.

Lezoko historia urratsez urrats bildumako laugarren emaitza da *Lezoko herri mugimendua XX. mendean* liburua. XIX. mendeko kontuekin hasten da liburua, eta azken urteetako kontuekin amaitzen. Liburuko protagonista askorekin mintzatuta bildu du informazioa liburuaren egileak.

■ Haur eta gazte literatura

Istorioen labirintoa

Ipuin klasikoak zatika aurkituko ditugu liburu honetan. Baina ipuin baten zati bat beste ipuin baten beste zati batekin lotzeko moduan dago idatzita. Irakurleak erabakiko du zati bakoitzaren ondoren nondik jarraitu nahi duen. Ipuin batetik bestera saltoka ibiliko da, eta horrela ipuin berriak asmatuko ditu. Jolas polita eskaintzen du liburuak ipuinak bata bestearekin josteko. Erraz ezagutzeko moduko pertsonaiaak dira (Txanogorritxu, Hiru Zerrikumeak, Edurne Zuri...), baina izenik gabe idatziak, pertsonaia berak ipuin desberdinak lotzean berdin balio izateko. Ilustrazioak garrantzi handia hartzen du. Orri bakoitzean bi istorio daude, eta istorio baten marrazkiak bestearekin nola labaitzeko lotura lotzen dute. Hala, marrazkiei bakarrik begiratu 1002. ipuina asmatzeko aukera ere emango dio irakurleari. Azken orriaren marraztutako mapak irakurtzen dugun edozein bertsiori logika jarriko dio; ipuin hauek guztiak posible diren lurraldeko mapa simple eta ederra da.



■ '1001 ipuin'

Egilea: Lila Prat.
Itzultzailea: Aitor Arana.
Argitaletxea: Ibaizabal.



■ 'Aitarekin arrantzan'

Egilea: Begoña Lasa Arbelaitz.
Ilustratzailea: Jon Zabaleta.
Argitaletxea: Erein.



■ 'Bagdadeko aurpegiak'

Egilea: Juan Cruz Igerabide.
Argitaletxea: Erein.

Kasualitateak

Gianni Rodarik idatzitako istorioak bezala hasten da ipuin hau ere; edozein bi hitz hartu, bata bestearen atzean jarri, eta lortu duzu ipuin bat hasteko aitzakia. Ariketa hori jarri diote eskolan protagonistari, eta *aita* eta *arrantza* hitzak egokitu zaizkio ipuina idazteko. Hitz horiek eramango dute haren irudimena opor garaira, arrantzara, zirkura eta hemengo pailazoa laguntzera. Haren buruan gustura dabil-tzan ideia hauek ez dira paperera iritsiko, baina kontaketa bizia osatuko dute. Azkenean, kasualitateek konponduko duten kontaketa izango da. Liburuaren egitura sinpleegia—testua ezkerreko orrian eta marrazki nagusia eskuinekoan liburu guztian—pixka bat puskatzen saiatu dira, testua eta marrazki nagusia marrazki txiki eginiko marko moduko batean bilduta. Marrazki nagusiek testuan esaten dena errepikatzen dutenez, interesgarriago bihurtzen dira marko hauetako marrazkitxoak, irudi generako tarte handiagoa uzten baitute.

Ankerkerian maitasuna

Aspaldian Bagdag ikusi, entzun edo irakurtzean, leherketak, heriotza, mina, arrazoi gabezia eta antzekoak etortzen dira gogora. Bagdag inguruan gertatutako bi istorio kontatzen ditu protagonistak, bat gaurkoa eta bestea aspaldikoa. Bietan dago garai gogorretan maitasunerako tartea. Bietan jakinduria eta laguntasuna gerra eta itsutasunaren gainetik jarri nahia. Kontaketa gogorra egiten da, protagonisten bizipenak halakoak direlako. Aspaldiko istorioan sufien jakinduria xumeak egoerari gain hartuko diola dirudi. Baina honekin tartekatzen den gaur egungo istorioan gertatzen direnek erakusten dute milaka urtetatik jakinduria hori erabiltzen oraindik ez dakiela gizakiak. Bi garaiek txandakatzeak kontaketa entretenigarria egiten du pasarte gogorrenak luzeegi egin gabe. Protagonistak bere anaiarekin duen harremana inguruak nola baldintzatzen duen eta hark sortzen dizkion buruhausteak, gerrak adina min edo gehiago ematen du irakurtzean.

INAKI AGIRREZABAL >> iagirezabal@berria.info